

OSASUNA/ANIMALIATEGIA ESPEZIALITATEKO IV. TALDEKO HAUTAKETA-PROZESUEI BURUZKO INFORMAZIO OHARRA

Lan kontratudun langile finkoak hautatzeko UPV/EHUko IV. sailkapen taldea, teknikari laguntzaileak prozedura arautzen duen oinarri espezifikotan eskaintzen diren plazen artean hauek agertzen dira:

A.– Bi (2) plaza Teknikari Laguntzaileen kategorian,
Osasuna/Animaliategia espezialitatean, ezaugarri hauekin:

1.– Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

2.– Bat (1) plaza txanda librean, 2. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

Eskabidea egiteko aukera ematen duen Hautaketa-prozesuen zerrendan, plaza hauek bi hautaketa-prozesu ezberdinetan banatuta agertzen dira:

- Osasuneko/Animaliategiko teknikari laguntzailea (Osasunaren lanbide erdiko maila teknikariaren titulua)
- Osasuneko/Animaliategiko teknikari laguntzailea (Animaliategiarako gaitasun RD 1201/2005: B kat.)

Nahiz eta betetzeko betebeharrak espezifikoki ezberdinak izan Espezialitate eta Kategoria profesional berdineko plazak izanik, hautaketa prozedura bakarra izango da. Beraz, ofizioz, onartuen zerrenda bateratua egingo da hauetako edozein prozesuan eskabidea egin dituzten lehiakideak sartuz.

Era berean, bi eskabide aurkezteagatik bi aldiz tasa ordaindu dituztenei, tasa bati dagokion kopurua itzuliko zaie.